

1940 aurreko euskal liburu eta dokumentuak online irakur daitezke Liburuklik atari berrian

VITORIA-GASTEIZ, ARABA. Liburuklik ataria euskal kulturaren ikertzaile eta zaleentzako tresna oso erabilgarria izateko asmoarekin jaio da; izan ere, webgune honen bitartez Euskal Liburutegi Digitaleko fondoak eta Euskal Herrian 1940a baino lehen argitaratutako dokumentu asko eta asko izango dira eskuragarri. Liburuklik-ek Euskal Herriko zenbait erakundeen artxiboak ere jasotzen ditu, hala nola Eusko Legebiltzarrekoak, Arabako Foru Aldundikoak eta Antso Jakitunaren Fundaziokoak. Horrela, Liburuklik-en helburua euskal ondare bibliografikoa zaintzea eta zabaltzea da. Momentuz, 3.000 izenburu eta 350.000 irudi biltzen ditu atariak, baina beste 300.000 orri dituzte dagoeneko kargatzeko prest arduradunek. Urtea amaitu bitartean sareratuko dituzte. Liburuklik-en eskura daitezkeen dokumentu zaharrenak 1458 eta 1476ko bi eskuizkribu dira. Fondoak 1940a baino lehenagoko dokumentuak bakarrik jasotzen ditu, lan berriagoen jabetza-eskubideak direla eta. Hala ere, egileek edo eskubideen jabeek baimena ematen duten kasuetan lan horiek ere sareratuko ditu atariak.

Nola erabili Liburuklik

Liburuklik Massachussets Institute of Technology-k eta HP Labs-ek garatu duten DSpace plataforman oinarritzen da. Sistemak dokumentuak sailkatzeko eta bilaketak egiteko tresna indartsua du eta horren bidez erabiltzaileek milaka edukin arakatu, irakurri eta deskargatu ditzakete. Atarian biltzen diren atalak komunitate izena dute sistema honetan. Momentuz daudenak hauek dira (izenean klik egin eta atal bakoitzean bilaketa egin daiteke):

- HEMEROTEKA Prentsa historikoa Aldizkariak
- ARABAKO FORU ALDUNDIA Manuel Iradier funtsa Micaela Portilla funtsa
- Liburuak Tesiak Heraldika fitxak Ikerketa lan fitxak Arte inbentario fitxak
- EUSKO LEGEBILTZARRA Eskuizkribuak Monografiak
- EIBARKO "JUAN SAN MARTIN" Liburutegia
- LOIOLAKO SANTUTEGIA Monografiak

Liburuklik erabiltzeko bi era daude: bisitari bezala eta erabiltzaile erregistratu gisa. Erregistratzen denak bilaketak egiteaz gain sistemak kargatzen dituen dokumentu berrien abisuak jasoko ditu.